



EDIFICIO MANTEO
C/ Alejandría 2
20013 DONOSTIA– SANSEBASTIAN
Tel: 943 32 60 88 Fax: 943 29 18 13
bhi@zubirimanteo.com

AULA DE APRENDIZAJE DE TAREAS
ZEREGINEN IKASKUNTZAKO GELA
(A.A.T./ Z.I.G.)
ZUBIRIMANTEO INSTITUTUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Zereginen Ikaskuntzako Gela heziketa prozesuko baliabidea da, ikaslearen bitzita autonomorako zubi-lanak egiten dituen, lagunduko diona eraginkor izaten bizitzako arlo guztietan.

ZEREGINEN IKASKUNTZAKO PROGRAMAREN BIDEZ HAUXE LORTU NAHI DUGU:

Indartu norberaren osasuna eta bitzita emozionalarekiko ardurua.

Formazio zabala eskaini, ikasleari lagunduko diona lan-mundurako trebetasunak garatzeaz gain, lan munduko arauak ezagutzen eta, azken finean, gozaten bere ikaste-prozesuan.


Ikaslearen gaitasunak garatu —fisikoak, afektiboak, komunikaziozkoak eta integrazioa ahalbidetzen dutenak—, autonomia eta gizartean ongi integratzea lortu ahal izateko.

Helduen bizitzako arlo guztietan parte hartzera bultzatu: egunerokoan, lantegian, zerbitzuen erabileran, aisialdia kudeatu eta gozaten, etab.

ZIG programa behar bereziak dituzten ikasleentzat egina dago, lanpostua lortzeko adinako autonomia izan bai, baina oinarrizko Lanbide Heziketa egin ezin duten ikasleentzat.



Oinarrizko heziketan ikasitako ezagutzak garatu. Indartu komunikatzeko ahalmena, arrazoitzekoa, eguneroko arazoaren aurrean irtenbideak bilatzekoa, kreatibitatea.



ZIG Programak lau urteko iraupena dauka, 16 eta 20 urte bitarteko ikasleei zuzendua dago.



ANTOLAKETA ETA EGITURA

Zereginen Ikaskuntzako Gela lau urteko ziklo bakarrean dago antolatua.

Kurrikulumak hainbat arlo praktiko lantzea du helburu, gero bitza errealean ikasleak topatuko dituen arloak, hain zuzen: komunikazioa, eguneroko bizitzarako autonomia, integrazioa eta lanerako oinarritzko prestakuntza.

Enpresetan egindako praktikak azken ikasturtean burutzen dira Gureak tailerretan, beti ere ikaslearen egoerak horretarako aukera eskaintzen badu; ez dira, dena den derrigorrezkoak.



ORDUTEGIA

Zereginen Ikaskuntzako Programa betetzeko 31 ordu ditugu astero, 8:30etatik 13:30etara, tartean ordu erdiko atsedenaldia. Astelehen, astearte eta ostegunetan baita arratsaldez ere, 15:00etatik 16:50era.



EBALUAZIOA

Tutoreak —boletina tarteko— hiruhilero jakinaraziko die arduradun legalei zertan den ikaslearen ikasketaprozesua.

BADAGO JANGELA ZERBITZUA

Programa amaitutakoan, ikasleak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako prestakuntza ziurtagiria — Zereginen Ikaskuntza— jasoko du; bertan, ikaslearen datuez gain, Programa noiz hasi eta bukatu duen azalduko da.



IRAKASLEGOA

Honakoa:

Bi PT enborreko irakasgaiez arduratzen direnak.

Hiru Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, tailerren ardura dutenak.

Laguntzarako espezialista, hainbat ardura dituena: atsedenaldia, jangela, gelako laguntza behar dutenentzat.